



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokian haurrei eta familiei zuzendutako *Euskelelea* ikuskizuna izango dugu, umeen eta helduen irudimena piztuko duena

- Ikuskizuna ipuin musikatu bat da: **Enrike Solinís**en ideian eta instrumentu originalean, eta **Juan Kruz Igerabide** idazlearen hitzetan oinarritzen da.
- Datorren astelehenean, abenduaren 26an, arratsaldeko 19:30ean, **Euskal Barrokensemblek** interpretatutako doinu eta abesti tradizional ederrak entzungo dira, Irimarraren irudi ikusgarriz lagunduta.

Bilbo, 2022ko abenduaren 22a. – **Juan Kruz Igerabidek** idatzitako ipuinak kutsu magikoa du, eta txikien eta nagusien irudimena piztuko du; **Euskal Barrokensemblek** musika ederra interpretatutako du, **Enrike Solinís** buru duela; dantza-zertzeladak; eta **Irimarrak** egindako ilustrazio eder batzuk dira, elkarren artean bikain konbinatu ondoren, Arriaga Antzokiak datorren astelehenean, abenduaren 26an, eskainiko duen ***Euskelelea*** ikuskizuna osatzen duten elementuak.

Euskelelea Gabonetan familiarekin egiteko plan bikaina da, eta 3 urtetik aurrera dago gomendatuta. Euskarazko ipuin musikatu bat da, gaztelaniazko goitituluak izango dituena. Enrike Solinísek sortutako ideia eta instrumentu originalean oinarritzen da, euskelelean, alegia: material ekologikoz eta ekosistemarekiko errespetuz eraikitako pala itxurako ukelele modukoan. Eta horri gehitu egin behar zaio Juan Kruz Igerabide poeta eta idazlearen istorioa, entzuleak Euskal Herriko baso magiko batean kokatzen dituena, non Mari jainkosak laminek jolaserako erabiltzen duten pala musika-tresna oso berezi bihurtuko baitu: euskelele.

Ikuskizuneko musika Euskal Barrokensembleko instrumentista bikainek interpretatzen dute. Musika barrokoan eta antzinako musikan espezializatuta daudenez, primeran moldatzen dira emanaldi honetan, Juan Kruz Igerabidek idatzitako, eta ilusioz eta magiaz beteriko ipuina girotuz. Juan Kruz Igerabidek honako sari hauek jaso ditu, besteak beste: 1999ko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria, 1999ko eta 2003ko Haur Literaturako Espainiako Kritikaren Saria eta 2018ko Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala. Taldea **Maika Etxekoparrek**, **Lore Zeberio**k eta **Leire Berasaluzek** (ahotsak), **Lixsania Fernandezek** (viola da gamba), **Miren Zeberio**k (biolin barrokoa eta arrabita), **Mixel Etxekoparrek** (txirulak eta ahotsa), **Dani Garayk** (perkusioa), **Pablo Martinek** (kontrabaxua) eta **Enrike Solinísek** (aipatu euskelelea jotzen) osatuko dute. Emanaldiak Irimarraren ilustrazio ederren laguntza izango du, eta emaitza haur eta nerabeentzako erakargarria den ikuskizun bat da, musika, hitzak eta irudi ederrak baliatzen dituena. *Euskeleleak* gure irudimena piztuko du, ikusleengan kantatzeko gogoia eta gozamina eraginez.

Sinopsia

Behin batean ari omen ziren laminak pala batzuekin jolasean, Euskal Herriko baso magiko batean. Marik pala horietako bat hartu, barrutik hustu eta lau soka josi omen zizkion: soka bat lurrarentzat, marroia, beste bat urarentzat, urdina, beste bat haizearentzat, gardena, eta beste bat suarentzat, gorria. Horrela sortu ei zuen Euskelelea, bere kantuak laguntzeko musika-tresna aproposa, eta gerora munduan zehar zabalduko zena, lekuan lekuko izen eta musikak bereganatuz.

Proiektuaren jatorria

Proiektu honen historia bizkaitarrak Bragako (Portugal) katedrala eraikitzaera joan zirenean hasi zen; beraiekin lau hariko instrumentu txiki bat eraman zuten, aurreko mendeetan oso ezaguna zena eta *guitarrico* izena zuena. Musika-tresna oso ezaguna egin zen eta izen berria jarri zioten Portugalen: harrezkero *cavaquinho* esango zioten. Bere harrera-leku berritik, Bragatik, itsasoko bideetatik mundu zabalera hedatu zen, eta izen berria jartzen zioten iristen zen leku bakoitzean; horrela, Kanaria uharteetan *timple* izena hartu zuen, Indonesian *kerengong*, Brasilen *cavaquinho de Brasil...* Hawaiiin hartu zuen gaur egun gehien ezagutzen den izena: ukelelea.

Enrique Solinísek, musika-tresnaren historiarekin liluratuta, bere abiapuntura itzularazi du, Euskelele izenarekin bataiatuz. Hortik aurrera, Juan Kruz Igerabidek istorio liluragarri horri forma eman zion ipuin bat sortuz, Irrimarraren marrazki ederrekin batera, instrumentuak Euskal Herrian sortu zenetik egin duen bidaia irudikatzen saiatuz.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Euskelelea

Jatorrizko ideia eta zuzendaritza: **Enrike Solinís.**

Ipuina: **Juan Kruz Igerabide.**

Ilustrazioak: **Irrimarra.**

Argien diseinua: **Jabier Ulla.**

URRAITZ ETA LASK ABESBATZA

Dantza: **Onditz Esnaola eta Jurgi Errandonea.**

EUSKAL BARROKENSEMBLE

Ahotsak: **Maika Etxekopar, Lore Zeberio, Leire Berasaluze.**

Viola da Gamba: **Lixsania Fernandez.**

Biolin barrokoa eta arrabita: **Miren Zeberio.**

Txirulak eta ahotsa: **Mixel Etxekopar.**

Perkusioa: **Dani Garay.**

Kontrabaxua: **Pablo Martín.**

Euskelelea: **Enrike Solinís.**

Informazio gehiago:

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus